



Kataluniako Erreferendumaren aurrean, EhBildu eta EAJ taldeek aurkeztutako mozioa:

“Ilusioz bizi dugu une historiko hau. Ilusioz, itxaropenez, arduraz eta, batez ere, arretaz. Kataluniak urriaren 1ean hitzordu bat du demokraziarekin, hitzordu bat du etorkizunarekin. Lau egun barru, bide emango zaio kataluniarren hitzari eta borondateari. Gehiengo zabal baten babesarekin, etorkizuneko estatus politikoa erreferendum baten bidez erabakitzera doa. Kataluniako herriaren ametsa betetzera doa eta haien ametsa gurea ere bada: herritar gisa erabakitzea. Horregatik, ondorengoa adierazi nahi dugu:

1.- Urriaren 1ean demokrazia dago jokoan, botoaren balioa dago jokoan, bozkatzeko askatasuna dago jokoan, eta herritar guztien duintasuna dago jokoan, edozein dela haien pentsaera eta edozein dela haien jatorria.

2.- Kezkatuta eta arduratuta gaude kataluniarren bozkatzeko nahiaren eta erabakitzeko eskubidea erabiltzearen kontra Espainiako Estatutik iragartzen ari diren erantzun demofobikoekin. Herritarren ardura da autoritarismoari aurre egitea. Eta, beraz, euskal herritarren babesak balio behar du zigor bidea, neurri errepresiboak eta mehatxuak alde batera geldi daitezen. Erabakitzeko bozkatzea demokrazia delako, ulertezina da erreferenduma auzitegien jomugan jartzea eta herritarren botoaren balioa ukatzea. Kataluniako herritarren gehiengoaren borondate demokratiko eta baketsuari erantzuten dio erreferendumak, eta horregatik, erreferenduma posible izan behar da.

3.- Denon artean babesa eta elkartasuna adierazi nahi diogu Kataluniako herriari eta urriaren 1eko erreferendumari; baita Kataluniako erakundeei ere, eztabaida politikoari bide emateko erakutsi duten borondate irmoagatik, herritarren hitza eta erabakia lehenesteagatik eta hautetsontzietan jasotako agindua betetzeko hartutako konpromisoagatik. Begirunea eta errespetua adierazten diogu Kataluniako herritarren gehiengoaren borondateari; hau da, herritarrek etorkizuna erreferendum baten bidez erabakitzeari. Erabakitzeko bozkatzea demokrazia baita. Demokrazia besterik ez.”

Oñati, 2017ko iraila